

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezin eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko 2019ko zerga ordaintzeko epea

Landa eta hiri ondasun higiezin eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko 2019ko zerga ordaindu behar dutenen erroldak onartu eta jendaurrean jarri dira. Horiek horrela, abuztuaren 16a eta urriaren 16a bitarteko egun baliodunetan (borondatezko epea), biak barne, ordaindu ahal izango da.

Zergadunek udal bulegoetan egin ahal izango dute ordainketa, 9:00etatik 15:00etara, aipatutako epeko egun baliodunetan.

Era berean, zergapekoei jakinarazten zaie aukeran dutela ordainketa helbideratzea banketxe eta aurrezki kutxen bidez.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2019ko urriaren 3an kobratuko zaie.

Borondatez ordaintzeko epea igaro ondoren, betearazte aldia hasiko da, zeinak premiamendu errekarua eta berandutze interesak baitakartza, 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergen orokorrak, 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Gaubea, 2019ko uztailaren 24a

Alkate lehendakaria

JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI